

Kutxabankek edizio berezia eskaini die bezero dituen enpresei Deustuko Unibertsitateak sustatutako programan

## 60 ETE-k hartuko dute parte eraldaketa digitaleko programan

- **Alor guztietako enpresak dira, eta ikasturtea bukatutakoan eraldatze-plana izango dute**

**2024ko urtarrilaren 26an.** Gaur arratsaldean egin da Eraldaketa Digitalerako Programaren inaugurazio-jardunaldia. Deustuko Unibertsitateak eta Kutxabankek elkarlanean antolatu dute, Euskadiko ETEei zuzenduta dago eta 60 enpresak hartuko dute parte. Prestakuntza-programa Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan egingo da, eta parte-hartzaileen artean hainbat alorretako enpresak egongo dira, hala nola teknologia, industria, zerbitzuak, kontsumoa, ingeniaritza eta garraioaren sektorekoak.

Ikastaroak Next Generation funtsen diru-laguntza du, ekainean bukatuko da, eta **136 orduko prestakuntza emango du, aurrez aurre eta online.** Hilabete hauetan, parte-hartzaileek hainbat gai aztertuko dituzte, enpresek ekonomia digitalean dituzten erronkak, bezeroaren esperientziaren eraldaketa, aldaera teknologikoak eta hori kudeatzeko moduak, tartean.

Gainera, programak hein handi batean **kasu praktikoak aztertuko ditu** eta bakarkako lana prestatzean oinarrituko da. Prestakuntza programaren amaieran, parte hartzen duten enpresek eraldaketa digitalerako plana sortu ahal izango dute.

Bizkaiko inaugurazioa **Fernando del Hoyok**, Kutxabanken Handizkako Negozioaren zuzendari nagusiak eta **Jorge G. Barturen**ek, ETErako Eraldaketa Digitala Programaren zuzendari akademikoak aurkeztu dute. Gainera, programaren lehen modulua berrikuntzaren arloan ibilbide luzea duen **Guillermo Dorransoro** irakasleak eman du, "Testuinguru digitala" izenburupean.

Ikastaroan, Deustuko Unibertsitateko profesionalez gain, finantza-erakundeko hiru hizlarik parte hartuko dute, betiere ikuspegi praktikoan oinarrituta Kutxabanke digitalizazioa nola ulertzen duen azaltzeko. Irakasle arituko dira **Xele Olaizola**, Kutxabankeko Behatoki Digitalaren arduraduna; **Emiliano Pozuelo**, Kutxabankeko Adimen Artifizialaren arduraduna; eta **Belén Garay**, Kutxabankeko digitalizazioko zuzendariordea.

Deustuko Unibertsitatea, profesionalen prestakuntzaren arloan erreferentea, programa honen sustatzailea da eta gaur aurkeztutakoa Kutxabankeko bezeroentzat edizio berezia da, izan ere, hurbiltasunean eta espezializazioan oinarritutako enpresen banku-zerbitzua eskaintzen die bezeroei.

Ikastaroaren baitan, **Next Generation EU funtsak** aurkeztuko dira, eta finantza-erakundeak enpresei laguntzeko duen zerbitzuaren berri emango da.

### **Kutxabanki buruz**

Kutxabank erakunde liderra da Euskadin eta Kordoban. 700 bulego inguru ditu, bere jatorrizko lurraldeetan kapilaritate handiena duen sukurtsal-sarea, eta presentzia nabarmena du Andaluzian, Madrilen eta Katalunian. 5.000 profesional baino gehiagoko taldearekin, Kutxabank da, Europako ikuskatzaileen arabera, gure finantza-sistemako bankurik kaudimendunena eta Europan arrisku-profil onena duen hirugarren erakundea.